ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# ARIKETAK

Ondoko ariketen bidez, aukera ona izango duzu Euskaltzaindiaren gomendioak berrikusteko. Zuzenketaren ostean zalantzarik baldin baduzu, jo beldur barik *ARGIRO* liburura edo HAEEren web-gunera (www.ivap.com), bertan baituzu liburu horren laburpena.

**JARRAIBIDEAK**

Hautatu erantzun zuzena, baina argi ibili: zenbait ariketatan aukera zuzen bat baino gehiago dago.

1. a) Bileran **Sailburua, Zuzendaria, Zuzendariordeak** eta **Zerbitzuburuak** izan ziren.
   b) Bileran **Sailburua, Zuzendaria, zuzendariordeak** eta **zerbitzuburuak** izan ziren.
   c) Bileran **sailburua, zuzendaria, zuzendariordeak** eta **zerbitzuburuak** izan ziren.

2. a) Hurrengo bilera **Asteartean** izango da, **Uztailaren** 14an.
   b) Hurrengo bilera **astearteon** izango da, **Uztailaren** 14an.
   c) Hurrengo bilera **asteartean** izango da, **uztailaren** 14an.

3. a) Hilaren 3an argitaratuko dira **behin behineko** zerrendak.
   b) Hilaren 3an argitaratuko dira **behin-behineko** zerrendak.
   c) Hilaren 3an argitaratuko dira **behinbehineko** zerrendak.

4. a) Galdera jaso eta **bat batean** erantzun beharko da.
   b) Galdera jaso eta **bapatean** erantzun beharko da.
   c) Galdera jaso eta **bat-batean** erantzun beharko da.

5. a) Oso haserre geunden, ez **baigintuzten** ikastaroan onartu.
   b) Oso haserre geunden, ez **bait-gintuzten** ikastaroan onartu.
   c) Oso haserre geunden, ez **baikintuzten** ikastaroan onartu.
   d) Oso haserre geunden, ez **bait gintuzten** ikastaroan onartu.

6. a) Galdera guztiak orriaren **aurrekaldean** daude, eta erantzunak atzekaldean.
   b) Galdera guztiak orriaren **aurrealdean** daude, eta erantzunak atzealdean.
   c) Galdera guztiak orriaren **aurreko aldean** daude, eta erantzunak atzeko aldean.

7. a) Hautagaiek baldintza **guzti horiek** bete behar dituzte.
   b) Hautagaiek baldintza **horiek guztiak** bete behar dituzte.

8. a) Zure erantzunaren **zai**, agur.
   b) Zure erantzunaren **zain**, agur.

9. a) Bulego **batetan** lan egiten dut.
   b) Bulego **batean** lan egiten dut.
   c) Bulego **baten** lan egiten dut.

10. a) Ordenagailua zoratu bezala gelditzen da **batzutan.**
    b) Ordenagailua zoratu bezala gelditzen da **batzuetan.**

11. a) Lan-eskaintza **batzu** ikusi ditut gaurko aldizkari ofizialean.
    b) Lan-eskaintza **batzuk** ikusi ditut gaurko aldizkari ofizialean.

12. a) Azterketari **batzuk** arratsaldez egin behar dute azterketa.
    b) Azterketari **batzuek** arratsaldez egin behar dute azterketa.

13. a) Ikastaroa hasita**koek ezik**, eskatzaile guztiek egin behar dute sarrera-proba.
    b) Ikastaroa hasita**koak ezik**, eskatzaile guztiek egin behar dute sarrera-proba.
    c) Ikastaroa hasita**koek izan ezik**, eskatzaile guztiek egin behar dute sarrera-proba.
    d) Ikastaroa hasita**koak izan ezik**, eskatzaile guztiek egin behar dute sarrera-proba.

14. a) Erabakiaren **bosgarren** atalak dioenez...
    b) Erabakiaren **bostgarren** atalak dioenez...
    c) Erabakiaren **boskarren** atalak dioenez...

# A R I K E T A K

**15.** a) Txominek **6garren** pisuan lan egiten du.
b) Txominek **sei. pisuan** lan egiten du.
c) Txominek **6. pisuan** lan egiten du.
d) Txominek **seigarren** pisuan lan egiten du.

**16.** a) **XIXgarren** mendeko esapide asko baliagarriak izan daitezke gaurko administrazioko idazkietan.
b) **XIX** mendeko esapide asko baliagarriak izan daitezke gaurko administrazioko idazkietan.
c) **XIX.** mendeko esapide asko baliagarriak izan daitezke gaurko administrazioko idazkietan.

**17.** a) **Bosna** minutu izango dituzte azterketariek ahozko gaia prestatzeko.
b) **Bostna** minutu izango dituzte azterketariek ahozko gaia prestatzeko.
c) **Bost** minutu **bana** izango dituzte azterketariek ahozko gaia prestatzeko.

**18.** a) Zuzendutako azterketa bakoitzeko **mila bana pezeta** jasoko duzue.
b) Zuzendutako azterketa bakoitzeko **milana pezeta** jasoko duzue.
c) Zuzendutako azterketa bakoitzeko **mila pezeta bana** jasoko duzue.

**19.** a) Jakin nahi nuke zure **eritzia** zein den.
b) Jakin nahi nuke zure **iritzia** zein den.

**20.** a) Ondoren azalduko dizut zein **irizpide** erabili ditugun zure eskaintza bazter uzteko.
b) Ondoren azalduko dizut zein **erizpide** erabili ditugun zure eskaintza bazter uzteko.

**21.** a) Honen bidez **jakinerazi** nahi dizut irailaren 19an amaitzen dela izena emateko epea.
b) Honen bidez **jakinarazi** nahi dizut irailaren 19an amaitzen dela izena emateko epea.
c) Honen bidez **jakin arazi** nahi dizut irailaren 19an amaitzen dela izena emateko epea.
d) Honen bidez **jakin erazi** nahi dizut irailaren 19an amaitzen dela izena emateko epea.

**22.** a) Zein ordutegi nahiago duzun **adierazi** behar duzu eskabide-orrian.
b) Zein ordutegi nahiago duzun **adiarazi** behar duzu eskabide-orrian.

**23.** a) Berdinketa **izan ezkero**, lehendakariak erabakiko du.
b) Berdinketa **izanez gero**, lehendakariak erabakiko du.

**24.** a) Datu guztiak ondo **ba daude**, aurrera aterako da gure proposamena.
b) Datu guztiak ondo **badaude**, aurrera aterako da gure proposamena.

**25.** a) Ahozko azterketak hilaren **lauean** eta **seiean** izango dira.
b) Ahozko azterketak hilaren **lauan** eta **seian** izango dira.
c) Ahozko azterketak hilaren **lauean** eta **seian** izango dira.

**26.** a) Aztertzaileari eman aurretik, **merezi** du azterketa **berrikustea.**
b) Aztertzaileari eman aurretik, **merezi** du azterketa **berrikusteak.**

**27.** a) Ehun eta hogei **kilometrotako** bi bidaia egiten ditut egunero.
b) Ehun eta hogei **kilometroko** bi bidaia egiten ditut egunero.

**28.** a) Zerbitzua **hobetu asmoz** berregituratu dugu organigrama.
b) Zerbitzua **hobetzeko asmoz** berregituratu dugu organigrama.
c) Zerbitzua **hobetzeko asmotan** berregituratu dugu organigrama.

**29.** a) Deialdiaren berri izan banu, izena **emango nuen.**
b) Deialdiaren berri izan banu, izena **emango nukeen.**
c) Deialdiaren berri izan banu, izena **emango nuke.**

**30.** a) Lanpostua aterako balute, eskatu **egingo nuen.**
b) Lanpostua aterako balute, eskatu **egingo nuke.**
c) Lanpostua aterako balute, eskatu **egingo nukeen.**

**31.** a) **Notariak funtzionariak** dira.
b) **Notarioak** funtzionariak dira.
c) **Notarioak funtzionarioak** dira.

**32.** a) Gure helburua da Euskal Herriko **biztanlegoak** euskararekin zein jarrera duen aztertzea.
b) Gure helburua da Euskal Herriko **biztanleek** euskararekin zein jarrera duten aztertzea.
c) Gure helburua da Euskal Herriko **biztanleriak** euskararekin zein jarrera duen aztertzea.

### DATA NOLA IDATZI

Hautatu idazkera zuzenak

**33.** a) Vitoria-Gasteiz, 1998ko ekainaren **22**
b) Vitoria-Gasteiz**en**, 1998ko ekainaren **22an**
c) Vitoria-Gasteiz, 1998ko ekainaren **22an**
d) Vitoria-Gasteiz, 1998ko ekainaren **22a**

**34.** a) Durango, 1998ko ekainak **22a**
b) Durango**n**, 1998ko ekainak **22an**
c) Durango, 1998ko ekainak **22**

**35.** a) Hurrengo bilera Lakuan izango da, **uztailak 9an**, eguerdiko hamabietan.
b) Hurrengo bilera Lakuan izango da, **uztailaren 9an**, eguerdiko hamabietan.
c) Hurrengo bilera Lakuan izango da, **uztailak** 9, eguerdiko hamabietan.
d) Hurrengo bilera Lakuan izango da, **uztailaren 9**, eguerdiko hamabietan.

**36.** a) Uztailaren 30ean, **ostegunean**, hartuko ditut oporrak.
b) Uztailaren 30ean, **ostegunez**, hartuko ditut oporrak.
c) Uztailaren 30ean, **ostegunarekin**, hartuko ditut oporrak.
d) Uztailaren 30ean, **osteguna**, hartuko ditut oporrak.

### ORDUA NOLA IDATZI

Hautatu idazkera zuzena

**37.** a) 03:15etan
b) 03:15ean

**38.** a) 12:30etan
b) 12:30ean

**39.** a) 05:45ean
b) 05:45etan

**40.** a) 22:12etan
b) 22:12an

### ZENBAKIEN IDAZKERA

Hautatu aukera zuzena

**41.** Nola idatziko zenuke 13?
a) hamairu
b) hamahiru

**42.** Nola idatziko zenuke 18?
a) hemezortzi
b) hamazortzi

**43.** Nola idatziko zenuke 22?
a) hogeita bi
b) hogetabi
c) hogei eta bi

**44.** Nola idatziko zenuke 50?
a) berrogetamar
b) berrogeitamar
c) berrogeita hamar
d) berrogei eta hamar

**45.** Nola idatziko zenuke 92?
a) larogetamabi
b) larogeitamabi
c) laurogei eta hamabi
d) laurogeitamabi
e) laurogeita hamabi
f) laurogei eta hamabi

**46.** Nola idatziko zenuke 1.500?
a) mila bostehun
b) mila eta bostehun

**47.** Nola idatziko zenuke 1.516?
a) mila bostehun eta hamasei
b) mila eta bostehun eta hamasei

**48.** Nola idatziko zenuke 1.000.000?
a) milloi bat
b) milioi bat
c) miloi bat

**49.** Nola idatziko zenituzke 300 eta 400?
a) hirurehun eta larehun
b) hiruehun eta lauehun
c) hirurehun eta laurehun

**50.** Nola idatziko zenituzke 600, 700, 800 eta 900?
a) seiehun, zazpiehun, zortziehun eta bederatziehun
b) seirehun, zazpirehun, zortzirehun eta bederatzirehun

# SOLUZIOAK

**1.-** c
**2.-** c
**3.-** b
**4.-** c
**5.-** c
**6.-** b eta c
**7.-** b
**8.-** b
**9.-** b eta c
**10.-** b
**11.-** b
**12.-** b
**13.-** c eta d
**14.-** a
**15.-** c eta d
**16.-** c
**17.-** a
**18.-** a
**19.-** b
**20.-** a
**21.-** b
**22.-** a
**23.-** b
**24.-** b
**25.-** b
**26.-** a
**27.-** b
**28.-** b eta c
**29.-** a eta b
**30.-** b
**31.-** c
**32.-** b eta c
**33.-** b eta d
**34.-** bat ere ez
**35.-** b eta c
**36.-** a, c eta d
**37.-** b
**38.-** b
**39.-** a
**40.-** b
**41.-** b
**42.-** biak (a eta b)
**43.-** a
**44.-** c
**45.-** e
**46.-** b
**47.-** a
**48.-** b
**49.-** c
**50.-** a